EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
IRTEERA - SALIDA
2013 MAI. MAY. 29
Nº 3621 ZK.
ERREGISTRO OROKORRA/REGISTRO GENERAL

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
**ERAKUNDE, SEGURTASUN ETA JUSTIZIA BATZORDEA**
**COMISIÓN DE INSTITUCIONES, SEGURIDAD Y JUSTICIA**

## ERAKUNDE, SEGURTASUN ETA JUSTIZIA BATZORDEKO MAHAIAREN EBAZPENA, SUBSIDIARIOTASUN PRINTZIPIOAREN BETEKUNTZA EGIAZTATZEKO EUROPAR BATASUNEKO PROPOSAMEN HONI BURUZ: EUROPAKO LEGEBILTZARRAREN ETA KONTSEILUAREN ERREGELAMENDUA, EUROPOL BEHARTZE FUNTZIOETARAKO LANKIDETZA ETA PRESTAKUNTZARAKO EUROPAR BATASUNEKO AGENTZIARI BURUZKOA, ZEINAREN BIDEZ INDARGABETZEN DIREN 2009/371/JBA ETA 2005/681/JBA ERABAKIAK.

Eusko Legebiltzarreko lehendakariak ebazpen bat eman zuen 2009ko abenduaren 9an, erregulatzeko zer prozedura jarraitu behar den Europar Batasunaren ekimen normatiboei dagokienez subsidiariotasun-printzipioaren betekuntza egiaztatze aldera alerta lasterra tramitatzean. Bestalde, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak gaiari buruzko erabaki bat hartu zuen 2011ko irailaren 13an. Bi xedapen horiek kontuan izanik, Erakunde, Segurtasun eta Justizia Batzordeak honako dokumentu hau aztertu du:

1. Diputatuen Kongresuak 2013ko apirilaren 30ean bidalitako dokumentazioa, bereziki Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren erregelamendua, Europol behartze-funtzioetarako lankidetza eta prestakuntzarako Europar Batasuneko Agentziari buruzkoa, zeinaren bidez indargabetzen diren 2009/371/JBA eta 2005/681/JBA erabakiak.

2. Segurtasun Sailak bidalitako txostena.

Taldeek ez baitute aurkeztu irizpide-proposamenik gaiari buruz, hau erabaki da:

"Adierazten da erreferentziako europar ekimenak subsidiariotasun-printzipioa errespetatzen duela.

## RESOLUCIÓN DE LA MESA DE LA COMISIÓN DE INSTITUCIONES, SEGURIDAD Y JUSTICIA PARA VERIFICAR EL CUMPLIMIENTO DEL PRINCIPIO DE SUBSIDIARIEDAD DE LA PROPUESTA DE REGLAMENTO DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO RELATIVO A LA AGENCIA DE LA UNIÓN EUROPEA PARA LA COOPERACIÓN Y LA FORMACIÓN EN FUNCIONES COERCITIVAS (EUROPOL) Y POR EL QUE SE DEROGAN LAS DECISIONES 2009/371/JAI Y 2005/681/JAI

Con arreglo a la Resolución de la Presidencia del Parlamento Vasco de 9 de diciembre de 2009, reguladora del procedimiento de tramitación de la alerta rápida para la verificación del cumplimiento del principio de subsidiariedad en relación con las iniciativas normativas de la Unión Europea, y al acuerdo de la Mesa de 13 de septiembre de 2011, la Mesa de Comisión de Instituciones, Seguridad y Justicia ha analizado la siguiente documentación:

1. Documentación remitida por el Congreso de los Diputados con fecha 30 de abril de 2013, en especial la Propuesta de reglamento del Parlamento Europeo y del Consejo relativo a la Agencia de la Unión Europea para la cooperación y la formación en funciones coercitivas (Europol) y por el que se derogan las decisiones 2009/371/JAI y 2005/681/JAI.

2. Informe remitido por el Departamento de Seguridad.

No habiéndose formulado por los grupos propuestas de criterio al respecto, se ha adoptado el siguiente acuerdo:

"Se declara que la iniciativa comunitaria de referencia respeta el principio de subsidiariedad.

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.parlamentovasco.euskolegebiltzarra.org

Hala eta guztiz ere, komenigarria litzateke zehaztea, eginkizun hertsatzaileak burutzen dituzten agenteen prestakuntza-jardueren koordinazioari loturik (6. artikulua), eta Europolen funtzioei dagokienez, koordinazio horrek zerikusia duela Europolen eskumenekoak diren delituez jasotzen duten prestakuntzarekin.

Erregelamendu-proposamenaren 6. artikuluan jasotako gainerako kasuetan, Europol Akademiak prestakuntza-jarduerak babestu, garatu eta eman baino besterik ez luke egin beharko, estatu kideetako agintari eskudunen prestakuntza-politika koordinatu eta ebaluatu gabe".

Eta horrela jasota geratzeko, ebazpen hau bidaltzen da, Gasteizen, 2013ko maiatzaren 28an.

No obstante, sería conveniente precisar en lo que atañe a las funciones de Europol en relación con la coordinación de las actividades formativas de los agentes que realizan funciones coercitivas (artículo 6) que tal coordinación se refiere a la formación que reciban en referencia a los delitos competencia de Europol.

En el resto de supuestos recogidos en el artículo 6 de la propuesta de Reglamento, la Academia Europol debería limitarse a apoyar, desarrollar e impartir actividades formativas, pero sin coordinar o evaluar las políticas formativas de las autoridades competentes en los estados miembros ".

Y para que así conste, se remite la siguiente resolución, en Vitoria-Gasteiz, a 28 de mayo de 2013.

Ontzat emana
BATZORDEKO LEHENDAKARIA
Visto bueno
EL PRESIDENTE DE LA COMISIÓN

Juan Antonio Arieta-Araunabeña Ibarzabal

BATZORDEKO IDAZKARIA
EL SECRETARIO DE LA COMISIÓN

Daniel Maeztu Perez